

BBK txartelak



**BBK txartelek opariak
gordetzen dituzte**

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilerro,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

bbk =


MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
berria

2002ko URRIA / 48. zkia. DOHAIN

AEK Eguna

**Bizkaiko Bertsolari
Txapelketa**

**Karmelogatik
borrokan**



Aiora Renteria:

**<<'Harrobian' disko berriak
istorio oso bat kontatzen du>>**



Delmatarren etxea (1870)

Erretratu hori 1874 urtekoa baino arinagokoa da. Gaur egun Campo Volantin esaten deusaguna da, alderdi horri 'Ibarra' eta 'Bustintzaurreta' esan jakola ahaiztu barik. Eskuineko etxea Delmas familiarena zan eta berau dogu Campo

Volantinen Bilboko burgesek egindako lehenengo jauregia.

Delmastarrak Italiatik etorritako inprimatzaile leinu ospetsua osatu eben


Bilbon. Etxe hori bigarren karlistadean Bilboko defentsen barruan lehenengo-lehenengo lerroan egon zan. Ibaian gora, Bilborantz, baporea doa. Atzealdean, ostera, Uribarriko baserriak. Campo Volantineko alderdi hau 1870 urtean Bilbok beretzat hartu zuen, Begoñaren kaltetan.

Argazkia 'Bilbao 1860-1895. Pedro Telesforo de Errazquin' liburutik hartu dogu

Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuk genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



ARCHANDA (Bilbao): Gran Casino



▶ Iritzia	4	▶ Mahatsberriak	20
▶ AEK Eguna	5	▶ Hezkuntza	24
▶ Begoña eta Euskerea	8	▶ Kirolak: Iñaki Rios	26
▶ "Aldapan Gora"	10	▶ Bizkaiko Bertsolari Txapelketa	28
▶ Sorgintxulo	12	▶ Horoskopoa/Agenda	30
▶ Elkarrizketa: Aiora Renteria	15	▶ Hileko Argazkia	31
▶ Inkesta	19		

- E, aizu, gu kanpotik gatoz eta non dago Santutxu?
 - Santutxu? Bertin ba, baie, hamen aldatza bai, baie motxile da guzti etortie bere...
 - Eske AEKeguna da eta gu eguna pasatzera gatoz.
 - Jesus! Tabernak ta txosnak ta halangoak dekozuez jan ta edateko ta...
 - Bai, baina eguraldia badaezpada euria egiten badu, txubaske-roa eta jerseia ekarri ditugu.
 - A, holan bada, tire!
 - Zu, eta hemen zer dago?
 - Zelango zer dago? Ze bier dozue ba?
 - Ez dakit, giroa eta jendea eta gauzak, ze ez gara inoiz egon.
 - Zer dagoan? Hamen jeneroa asko ba, baie oin dana kontatie bere... , gatxa gero! Ideiripere ez dekozue?
 - Beno, nirekin barnetegian Santutxuko bat egon zen, oso maja, eta beti esaten zuen bera parrandan Bilbora jaisten zela, baina nik uste nuen Santutxu Bilbon dagoela, baina hori entzun eta

gero hori ere ez dakit. Bakarrik oso handia dirudiela ikusten dut.
 - Ba, Bilbon kontue gitxinekoa da. Ta handixe izan, bai, hamen danerik eta dana deko. Halan da ze, kontatie gatxa da. Baie hameko barri euki gure ozu, onena han Karmelon dekozu postutxu bet ta han errebatatxu bat dabiltezez debalde emoten ta haretxek kontaten dittuz hameko kontuek ondo ta politto. Bost urte ibilli direz holan ta makiñe bat gauze kontau dittuez daborduko. Asike hamen zer-nor dabillen jakin gure bozu, zoazie hara, hartu ta txosnatik txosnara apur bet leidu ta jakingo dozue. Unikoa, lastima azkenengoa ondinokarren ez dau urten ta ezin dozue leidu Basarraten kantauko dabena nor dan, edo hameko bertsolaridexk zetan dabiltezen edo gatzetxiegaz zer pasaten dan edo hamen ingeruan zelango jaidxek ta kontuek daoan ta azkanengo kontuetariko batzuk. Baie esaten badotzezue, etzera botako dotzue. Ganera zuek euskera ondo ikesi dozue ta ondo leiduko dozue, bueno, indizien azpidxen datorrena iguel apurtxu bet kostako jatzue, baie hori ez da euskerie jakittien problemie, hori beste kontu bet da.

**BALENDIN BERRIO-OTXOAKOAREN
KALEAREN ESANGURAREN INGURUAN**


B a d a Begoñako kale bat, eleizatean Bizkaiko bigarren zaindariaren izena dauana: Balendin Berrio-Otxoakoa. Izan bere, kale hori Urribarriko aldean dago, eta Kalisto Leginaren kalean hasi, Mauri-

ce Ravel Etorbidea zeharkatu eta Artxandako magaletan gora Lezamako trenbide zaharreko kaleraino doa. 1967. urtean hartu eban Bizkaiko lehenengo santu Balendin Berrio-Otxoakoaren izena kale honek.

Egin-eginean bere, santu hori Elorrioko uribilduan jaio zan 1827. urtean, eta Tonkinen, Txinan, hil eben martiri 1861. urtean. Bizkaitar praile domingotar hau misioetara bialdu eben 1857an, eta 1859. urtean, barriz, Tonkingo gotzain izentau eben.

Bizkaiko orduko agintariak behar beste egin eben haren gorpuzkinak Euskadira ekarteko, baina hareek ez ziran hona helduko 1886. urtea arte. Beste alde batetik, agintari hareek Erromari eskatu eutsen elorriotar semea dohatsu izentatzeko, eta hori bere bai jadetsi eben 1906. urtean, San Pio X.a aita santua zala.

Beti bere, laurogeita bi urte igaro behar izan ziran, Balendin Berrio-Otxoakoa santu izentatzeko, hau da, 1988ko bagilaren 19a arte.

GOTZON LOBERA REVILLA

EUROPA PARKEA


Europa parkea eremu zailean egoki egindako berdegunea dugu. Otxarkoaga, Txurdinaga eta Bolueta arteko ibarbide aldapatsu batean dago. Manuel Salinas eta Jose Iriondo arkitektoek diseinatu zuten 1988an. Guztira 107.000 metro karra-tu zabal da. Arkitektoek alderdi horretako topografiari lotu zioten proiektua, eta eraikuntzak eta astialdirako mikroarkitek-tura tartekatu zuten. Biribil bi dauzka Europa Parkearen tra-zatuak, bata bestearen barruan, eta hortik bidexkak noranahi atera-tzen dira, ibilbide polit asko egiteko aukera zein parke- ra sar-tzeko modu erraza emanez.

Gaur egun hutsa nagusia dela ematen du, oraindik ere zuhaitzak txikiak direlako eta inguruan eraikuntza asko dau-delako. Etxe horiek bi epetan eta bi estilotan eginda daude. Otxarkoagan, diktaduraren garaian ohi zen bezala, etxebizit-zak anabasan daude, orden barik eta espazioak gainezka egin arte beterik. 'Desarrollismo'aren eta sasoi hartako behar- rizanen ondorioak dira. Txurdinagan, ostera, eraikuntza sarea ordenaz jarri zuten, arkitektura txukunez lagundurik. Eusko Jaurlaritzak Hirigintzan eta Arkitekturatan hartu zituen lehenengo eskuduntzen ondorioa izan ziren.

Parkearen problemarik handiena herritar batzuek ematen dioten tratu ez-bidezkoan datza. Modu erreakzionario eta basatian, lehen mailako ondasun publiko soziala kaltetu izan dute.

IÑAKI URIARTE

**Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

ARGITARATZAILEA:

Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:

Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta.:

berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA

Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:

Arrate Diez,
Eneritz Ibarroondo,
Irene Berro,
Iratxe Ruiz,
Unai Cuevas

ARGAZKIAK:

Iñigo Azkona eta
Xabier Herrera

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:


Jaione Letamendia,
Alberto Ugarte, Iñaki
Gaminde, Igor M. de
Vidales, Santutxuko
Bertsu Eskola,
Iñaki Aurrekoetxea,
Joseba Zelaia,

Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA PUBLI-
ZITATEA:**
Koldo Urrutikoetxea,
Zuriñe Martínez

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ÁLE KOPURUA:
1.200



AEKegunaren astindua

**Santutxuko kaleak
milaka euskaltzaleren
aterpe izan ziren
urriaren 27an**

Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako euskaltzale andana galanta batu zen Santutxuko kaleetan urriaren 27an. AEKeguna ospatu zuten, alfabetatze eta euskalduntze koordinadorak euskararen alde egiten duen ahaleginari jaigiroan babesa eta sostengua emateko eguna hain zuzen.

Festagiroa Santutxuko aldapa guztietara zabaldu zen, noizbait Mahatserriko bazter hori herriz ere euskalduna izango dela iragarritz.

*Testua: H. Ortega
Argazkiak: Iñigo Azkona*

ARGITARATZAILEA:

Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:

Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta.:

berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA

Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:

Arrate Diez,
Eneritz Ibarroondo,
Irene Berro,
Iratxe Ruiz,
Unai Cuevas

ARGAZKIAK:

Iñigo Azkona eta
Xabier Herrera

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:

Jaione Letamendia,
Alberto Ugarte, Iñaki
Gaminde, Igor M. de
Vidales, Santutxuko
Bertsu Eskola,
Iñaki Aurrekoetxea,
Joseba Zelaia,

Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA PUBLI-
ZITATEA:**
Koldo Urrutikoetxea,
Zuriñe Martínez

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ÁLE KOPURUA:
1.200

**Sastreria
PEDRO**
**IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO**
Santutxu kalea, 46
Tfnoa: 944 333 935
Santutxu kalea, 37
Tfnoa: 944 128 714
www.bilbaoweb.com/Spedro
E-Mail: iban.lopez@navegalia.com

**HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE**
GABRIELARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA
94 412 82 74
O.P.E.: 029/97


CYBER TIME
Ordenagailua gurea da
ideiak, zureak
Sarean jolasak
Internet
Inprimaketa
Eskanerra
Datu grabaketak...
Aita Pernet, J
48004 Santutxu
Bilbo
Tfnoa/fax: 94 459 74 06
E-mail: cyber-time.euskalnet.net
http://www.cyber-time.euskalnet.net



SANTUTXUKO KALEETAN milaka euskaltzale elkartu zen AEKegunaren hamabosgarren edizioa ospatzeko. Jaigiro ederrean, jende asko baina aise ibiltzeko moduan, Basarrate, Karmelo eta Bastida plazako guneak euskararen aldeko aldarri festazalea bihurtu ziren hamabi orduz. AEKzaleen jarioari eutsi ezinik, plaza horietatik jendea andanaka Karmelo eta Iturriaga kaleetara ere isuri zen, baita garabiaren plazara ere. Azken bazter horretan Cantharellus elkarteak perre-txikokak barra-barra banatu zizkien hurreratu ziren guztiei.

Honez gero denok jakingo duzue Julio Ibarra ETBko kazetariak irakurri zuela hasierako ekitaldiko pregoia. Santutxuko AEKn euskaldundu zela gogoratu zuen, plaza bete jenderen aurrean. Bere hitzaldiaren ostean Mertxe Muxika AEKko Batzorde Nazionalako kideak egin zuen berba. Azkenik, Gaztedi taldeak dan-tza agerraldi labur bat egin zuen.

H a r r e z gero jaia Santutxuko kaleetatik barreiatu zen. Gu kuxuxean ibili ginen handik eta hemendik gero zuei kontu batzuk jakinarazteko. Esate baterako, goizeko ekitaldirik arrakastatsuen, duda barik, Karmelo plazako aurkezpen ekital-



Ezkerreko orrian, goitik behera, Santutxuko AEKko 'beteranoak', omenaldia jaso zutenak, eta beheko argazkietan Bastida plazako ume giroa. Erdian, Karmelon Gaztedik egindako agerraldia.

Goian, BERTON ere AEKegunean egon zen. Behean, Zea Mayseko kontzertua.



dia izan zen. Arratsaldeko errege-erreginak, ostera, beste bazter batean paratu ziren: Bastida plazan hain zuzen. Bertan batu ziren Takolo, Pirritx, Porrotx eta plaza hartan sartu ahal ziren ume eta guraso guztiak. Gainezka egin arte bete zuten pailazoekin barreka eta algaraka ibili nahi zuten umetxoek.

Eta iluntze aldeko epizentroa Basarrate plazan kokatu zen. Arbolartean ehunka lagun batu zen rock kontzertuaz gozatzeko txosnen laguntasun hurbilaz. 'Kuraia' eta 'Zea Mays' izan ziren txalotuenak.

ZER JANA ETA ZER EDANA

Euskaltzalea ez da kulturaz bakarrik bizi. Sabelak ere bete behar dira. Datuak esanguratsuak dira, oso. Ogitartekoak (bokatak) egiteko ogia agortu zen. Mila ogibarra baino gehiago erabili zuten bokatak egiteko. Herri bazkarian ere berrehundik gora lagun batu ziren. Eta edan? Garagardoa 'ia dena' -AEKkoen hitzetan- saldu zen. Aho bete haginekin utziko zaituztegu kalimotxoia ez zela horrenbeste saldu esatean. Ondorio soziologikorik atera daiteke hortik?

Edozelan be, euskaltzale askok ondo bete zituzten barruak, domeka izan arren jaiari segida luzea eman zioten eta. Badirudi batzuek AEKegunarekin nahikoa ez eta AEKastea eskatzen hasiko direla...

ESKERRIK ASKO SANTUTXU!

AEKeguna pasatu ostean, AEKko arduradunak pozarren zeuden lortutako emaitzekin. "Oso pozik gaude bai gu eta baita kanpotik etorri diren guztiak", esan zigun Kristina Antonek, AEKegunko arduraduna. Santutxura zenbat lagun hurreratu zen esaten ausartu ez eta 'milaka' erantzun zuen.

Antolakuntza lanetan guztira 250 lagun ibili ziren, eurretatik asko, ehundik gora, santutxuarrak. "Hemendik eskerrik handienak eman nahi dizkiogu Santutxuko auzoari. Jendeak lan handia egin du AEKeguna aurrera ateratzeko", esan zigun AEKko arduradunak.



Txaskarrilloak Salaketak Enkestak
Otxarkoaga eta txurdinagan
WWW.PA-YA.ORG
 Berriak Herri mogimendua Euskal kultura
 Gure presook Pa...yak baditu alternatibak

ESPAINIKO GERRA ZIBILA GURE HERRIAN (V)


AURREKO ALEETAN, 1936KO GERREAREN GANEKO HAINBAT MAHATSORRIREN LEKUKOTASUNAK EKARRI BADOGUZ BE BEGOÑA ETA EUSKAREA, ATAL HONETARA, ORAINGOAN EZ DA HOLAN IZANGO. KONTU HONEN GANEAN, PROPOSAMEN EDO IDEIAREN BAT ZABALDU GURA DOGU, GERRA HONEN OROITZAPENA HURRENGO BELAUNALDIETAN BE BIZIRIK EGON DAITEN HERRIKO MEMORIA HISTORIKOAN. ARMATZ ALTXATU ZIRENEN ALDEKOAK, BEHARBADA, AHAZTU GURAKO DABE BAINA GUK EZ.

Testua: Koldo Urrutikoetxea

Begoña eta Euskerea

Azken egunotan, Zaldibin topatutako gazte biren gorpuzkinak, edota bide baztarretan eta beste edozein lekutan gerra denporan fusilatutakoan barri emon deuskuez egunkariak. Aranzadi alkarte eta beste ahots asko be, sasoi haretan jazotakoaren ikerketa sakona egitearen alde dagoz. Dagozan testimonio guztiak batu, argitu, eta isilpetik edo ahazturatik merezi daben lekura atara, behin betiko argi eta garbi egon daiten. Urte askoan gerra kontuen ganean berba egiteari bildur handia egon da. Ondorioz, hainbat eta hainbat istorio galdu egin dira betiko zoritxarrez.

BIZKAIKO OFENTSIBA
Euskal Herrian egon zan lehenengo ofentsiba, Nafarroan izan zan. Bertan 3.000 pertsona inguru fusilatu ebezan Nafarroa osoan zehar, altxa-



ARCHANDA (Bilbao): Gran Casino
Artxandako kasino, gerran suntsitu baino lehenago

Mola Jenerala Bizkaiko frontean argazkiak egiten (Espainiako gerra Zibila Euskal Herrian liburutik hartutako argazkia)



mentuaren aldekoek.

Bizkaiko ofentsiban, Gamiz eta Fika aldetik apurtu eben Burdinezko Hesia (Cinturon de Hierro). Jose Antonio Urgoitia tenientearen esanetan, Otxandioko frontetik, ordurako frontera, 12.000 gizon hil ziren. Euskal Armada 70.000 gizonkoa izan zan Otxandion baina ordurako 40.000 koa baino ez zan, Urgoitiaren esanetan.

1937ko apiriletik, 1937ko ekainera bitarteko Bizkaiko ofentsibaren datu apur honeek emoten deuskue gerra basati honen eragin latza. Horrez gain, bonbaketak, fusilaketak, kartzela eta exilioa, eta herri baten persekuzio politiko, kulturala eta soziala etorri ziran honen ostean.

BILBO
BERTONen orrial-

Iturritualde edo Mote Avrileko ametrailadora babeslekua

Behean:
Ganguren mendiko bunkerrak



detan be gure memoria historikoa freskatuten ahalegindu gara eta bertoko begoñatarren oroitzapena arakatuten ibili gara behinik behin.

Armada faxista, Ganguren menditik eta Artxandatik besteak beste, sartu zan Bilbora eta Artxandako bataila izan Bilbo hartu aurreko azkena. Bertoko lekukoen arabera, gazte andana hil eben Artxandan eta Ganguren mendian. Zenbat izan ziren?

Bilbo, 1937ko ekainaren 19an jausi zan eta "Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian" liburua-aren arabera, "Hesia hautsi eta zazpi egun iraun zuen Eusko Jarlaritzaren inguruan eratutako autonomia zabalaren agoniak. Galdakao ondoko Santamaña konkistatu zuten frankistek. Erreketek Zamudio hartu zuten eta Derioraino iritsi ziren Txorierrin. Enekuri-Artxanda-Santo Domingo muinoa besterik ez zen geratzen Bilbo eskura izateko".


INFORMAZINO KARTELAK ETA IBILBIDEAK

Gaur egungo industri ondorengo Bilbo turistikoa honetan, Artxandatik bueltan Bilboko parajeak erakusten dira eta Ganguren menditik zehar ibilbideak dagoz baina ez dagoz 1937 urtean gertatuko oroigarrik ezta informazio kartelik ere.

Gure historiaren zati bat falta da hor. Hainbat gudarik herri libre baten aldeko emondakoa hain zuzen be.

Gerraren arrasto asko ez badira be gaur egun, hor dagoz oraindino Hesiko arrastoak eta hormigoizko eraikinak sasi artean ostenduta. Behar bada beste arrasto batzuk be egongo dira.

Horregatik beharrezkoa da, batetik, gure inguru honetako ikerketa historikoa bideratutea dagoan informazioa osatuteko, eta bestetik, ibilbideak markatutea eta informazio kartelik imintea Artxanda eta Ganguren mendian beste atal historiko eta kulturalakaz batera.



Santo Rosario, 1 (Santutxu)
Tlf.: 94 473 10 65



Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Uribarriko eta Matikoko jaietan, 'Aldapan gora'

Testua : *Itxaso Perez*
Argazkiak: *BERTON*

Uribarriko eta Matikoko jaiak amaitu direla hilabete pasa da, eta berrikuntza batzuk ikusi ahal izan dira. Aldaketa ez da izan aurten bururatu zaielako, lau urtetik hona egindako gogoeta baten ondorioa baizik. Gogoeta horren ondorioa ere izan da elkarte berri hau sortzearena, 'Aldapan gora' hain zuzen ere.



Uribarriko Jai Batzorde barruan hasi zen aldaketaren beharra mamitzen, jaiak kutsu komertzial hutsa hartuko ote zuten beldur. Bide berean, Matikoko Jai Batzordearen desagerpenak, eta ondorioz, Matikoko jaiak eurak ere desagertzeak egoeraren larria adierazten zuten. Orduan-txe, duela lau urte, garai hartako Uribarriko Jai Batzordean jende berria sartu zen. Jai batzordekideek eztabaidari ekin zioten, jaiak beherantz zihozazela ikusita.

Auzo bien ezaugarriak aztertuta zera ikusi zuten: lo egiteko auzoak bihurtzen doazela pixkanaka; mugimendu kulturala desagertzeko bidean dagoela, oinordekoek ez dutelako erreleboa hartzen; eta azkenik, Udalak planteatzen dituen irizpideetatik kanpo dabil-tzan mugimendu alternatiboak ere desagertzen ari direla apurka-apurka, eta irauten dutenak, laster desagertuko direla somatzen da.

Hauxe ikusita pentsatu zuten auzoari begira lan egin behar zela, auzokideen partehartzea garrantzitsua zela. Hau da, jaiak egin auzoarentzat auzotarrek eginak, jai herrikoiak hain zuzen. Baina jaiak egiteaz gainera sekulako garrantzia eman nahi izan diote lan

iraunkorragoa egiteari. Zergatik? Mugimendu soziokulturalen ekimenei bultzada eman behar zaiolako, eta bestetik, eskaintza alternatiboak egin behar direlako. Hauek tradizio gehiago dutenetatik hasi eta horrela laupabost ekimenetan zentratu liriteke: auzoko jaiak, sanjuanak, inauteriak, olentzaroa eta, zailagoa ikusten dena baina posiblea ere, bertoko produktuen azokaren saio berriak egitea.

Aldapan Goraren aurkezpena aurtongo Sanjuanetan egin zen, jokuak, txokoladak, eta halako ekimenekin Eskolako Landan (Uribarrin). Hurrengo hitzordua Uribarri eta Matikoko jaiak izan da.

BIDE LUZEA

Baina, zergatik horrenbeste denbora gauzak mamitzen hasten denetik elkarte osatu eta aurkezpeneko unea egin arte? Jaiak erreferentetzat daukate, eta duela lau urte zeuden bezala zeuden, nahiko goibel eta etorkizun iluna zeukaten. Lehendabizi auzoko egoeraren azterketa egin ostean ondorioztatzen duten lehenengo gauza aldaketaren beharra da, jendearengandik gertuagoak izan beharko liritekeela. Hiru urteren buruan

auzoan gera-tzen ziren organismoekin bilduta urte osorako koordinadora sortzearen beharra eta erabakia hartzen da, honen lehenengo helburua jaiak zabaldu eta finkatzea izanik.

Eta bigarrenik, iharduera kultural berri gehiago sartzeara. Planteamenduko aldaketa honek jai gune berriak sortzea dakar. Bi gune nagusi bereizten dira. Alde bate-tik, musikala eta gastronomikoa (Eskolako Landan) eta bestetik, haurrentzako gunea (Uzturre plaza). Azken orduan hori gastronomikoa ere bihurtu zen. Beste apostu garrantzitsu bat auzoko arteria edo bide nagusiak jai eremuan sartzeara da, hau da, Uribarri, Trauko eta Matikoko kaleak.

Honek guztiak sekulako aldaketa da berez, eta "arazoa" ere bada hasieran, erronka potolo bat. Hein handi batean gauzez bakarrik bizitzen ziren jaiak izatetik, egunez eginiko ekimenak nagusi izatera pasatu dira. Hau bolondresen lana izaten ohi da eta hasiera batean ez zen laguntza handirik egon asmo handiko proiektu hau aurrera eramateko. Gainera, asko eta asko jende berria eta ekitaldi berriak ere izanik, akats asko egiten dira, arazo asko aurre egiteko. Are gehiago, jaien lana bi asteak bakarrik ez dela kontutan hartzen bada, hiru edota hilabete batzuek gehiago behar izaten baitira prestatzeko. Egun, lan iraunkorra da urtean zehar. Negozio batekin alderatzen dute. Putzu batetara buruz botatzea bailitzan. Lehendabiziko urtean zorrak eta zorrak, eta hortxe galdera. Zelan demontre egin honekin aurrera? Eta erantzuna helburuetan ipinita dago. Dagoena egonkortu, beste ekintza batzuk egiteko behar den dirua lortu eta hortik aurrera eskaintza zabaldu eta haunditu.

Halaxe izan da ibilbidea hiru urtez. Izan ere, orain koordinadoran dauden batzuk proiektua eraikitzen hasi zirenean eta Jai Batzordean ibiltzen hasi zirenean,

berauk zorrak zeuzkan. Gaur egun eta duela urtebete jaiak finkatuta daudela uste dute eta aurrerapausua ematen da koordinadora aurkeztuz 2002ko Sanjuanetan.

IBILERA

Hainbat elkartek osatzen badute ere, ez dago funtzionamendu homogeen bat, hala erabaki dutelako. Gure Etxea Auzo Elkarte, AMPA, UEK (Uribarriko Elkarte Kulturala), Aletu Emakumeen Elkarte, Gailurra Mendi Taldea, Uribarriko Gazte Asanblada, Uribarri konpartsa, Ziri-ka Kultur Elkarte, Etxerat! Presoen Aldeko Kua-drila eta Mahatserri Euskara Taldeak osatzen dute koordinadora hau. Denek ez daukate ekite-

ko indar berdina, horrexegatik bakoitzak hartzen du ahal duen konpromezu maila eta zertan lan egin ahal duen.

Era berean, talde hauek denek ez dute koordinazioa era berean egiten. Batzuk zuzenean parte hartzen dute eta beste batzuk, lehen aipaturikoagatik, bilateralean koordinatzen dira. Jaiak eta bestelako ekimenetan, berdintsu, batzuk pisu gehiago hartzen dute eta beste batzuk ekimen zehatzetan parte hartzen dute. Baina momentuz ondo doakie horrela, funtzionamendu naturala delako.

JAIEN BALORAZIOA


Orokorrean baikor. Jende gehiagok parte hartu du. egunez egin diren ekintzetan partehartzea nabarmenki igo da, eta apostu hori hein handian bete dutela uste dute. Alde ez hain baikorra izan da gune batzuk hobetzearen beharra, baita egiten den lana auzoak gehiago aintzat har dezala da, hau da, baloratuagoa izatea. Pozik bestela.

BIENVENIDO

ALDAPAN GORA

Matiko eta Uribarriko Kultur Koordinakundea

ONGI ETORRI



ASAPALA
KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabilta

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org

Gaztedik eta Sorgintxulok lokaletan segi nahi dute eta Udalak zaharrentzako egoitza gura du

KARMELOGATIK BORROKAN

Zaharrentzako eguneko egoitza bat egin gura du Bilboko Udaleko Gizarte Ongizate sailak Karmelo elizaren ondoko eraikinean. Bertan Gaztedi dantza taldeak eta Sorgintxulo gaztetxeak daukate aterbea. Biek ala biek bertan jarraitu nahi dute. Udala Diputazioaren erabaki baten zain dago bere asmo horri ekiteko. Karmeloko lokalek zer esana ugari emango dute datozen hileotan gurean.

Testua: Irene Berro
Argazkiak: Iñigo Azkona



Bilboko Udaleko Gizarte Ongizate zinegotzi Eusebio Melerok jakinarazi digunez, Bizkaiko Diputazioak egin behar duen eraikin horren berkalifikazioaren zain dago. Abenduan edo urtarrilan emango ei du Diputazioak bere erabakiaren berri. Zentroak 24 zaharrentzako tokia edukiko luke eta 1.352.277 euroko inbertsioa eskatuko luke.

Gaur egun Karmelo ondoko eraikin horretan Gaztedi dantza taldea eta Sorgintxulo gaztetxea daude. Adineko jendearentzako egoitza egingo balitz, lokal horiek utzi beharkolitzukete talde biok. Gaztedikoek 51 urte egin dituzte bertan eta Sorgintxulok urtarrean lau beteko ditu.

Udal arduradunek zehaztu dutenez, Gaztedi dantza taldea-



rentzat lokal baten bila dihardute, eta ezer aurkitu ezean Begoñako auzo-etxea eskainiko diote. Sorgintxuloko gazteei ere Begoñako auzo-etxearetoak eskaini dizkiete, baina euren jarduerak egiteko toki egokia ez delakoan daude.

Izan ere, Sorgintxuloko ordezkari Gorka Irurtiaren iritziz, "ordutegi zehatzak ditu, edozein gela eskatzeko NAN txartela eman behar da, asteburuetan zarratuta dago eta kamara ugari ditu". Baldintza horiek ez ei dira gazteak jarduteko egokienak. "Kontzerturen bat egin nahi badugu, zelan egingo dugu?", galdezen du.

Arazoak ez dira musika arlokoak bakarrik. Gazteek beste hainbat esparrutan egi-

ten dute lan eta horiek ere traba handiak jasan beharko lituzkete. Esate baterako, gaur egun zinema dago Sorgintxulon domekero. Begoñako auzo-etxera aldatuez gero, igandeko zinema emanaldi hori bertan behera utzi beharko lukete.

GAZTEDIRENTZAT ERE EZ

Gaztedi dantza taldea ere ez du begi onez ikusten Begoñako auzo-etxera aldatu beharra. Taldeko arduradun Joselu Anguloren esanetan, hori ez da toki egokia eurentzat. "Domekan dantzaldi bat badaukagu eta zapatu arratsalean entsaio nagusi bat egin behar badugu, zelan moldatuko gara?", galdezen du.

Euren kezka azaltzeko, Gaztedikoak Santutxuko Familia Elkartear-



kin eta auzoko hainbat talde eta elkarterekin batu dira azkenaldi honetan.

Santutxuko Familia Elkarteko lehendakari Jabi Perezen iritziz, benetako arazoa Santutxun talde eta elkarretea asko non batu ez daukatela da. "Santutxun ez dago kultura eta astialdia lantzeko lokalik eta dagoen bakarra zarratze lotsagarria izango litzateke", dio Familia Elkarteko arduradunak.

Toki falta dela eta, Sorgintxuloko Gorka Irurtiak badauka zer kontatua. "Lehenengo batean 'Unión Begoñesa'ko auzokideak etorri ziren Sorgintxulora komunitateko batzarra egin behar zutelako eta ehun lagun batzeko moduko tokirik ez zutelako topatu auzoan", azaltzen du.

BENETAKO ARRAZOIA

Jabi Perezen iritziz, benetako arazoa beste bat da. "Bilboko Udaleko Gobernu Batzordekoen asmoa zein

GOJIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22



Santutxuko poteo gunean



ARROPAK ★
ZILARRA ★
OPARIK ★

Part. Arsuaga SANTUTXU
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO
bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz

SORGINTXULOREN JARDUNA

Testua: J.Larrazabal

Sorgintxulo berba esan eta askotan ez da erraza berari atxikita doazen kontu guztiez jabetzea. Izan ere, gaztetxe horrek hainbat ekitaldi, batzar, bilera eta topaketaren eszenatokia izan da azken lau urteotan. Jende askok eduki du non batu, non elkartu, non ideiak trukatu. Baina hori Sorgintxuloren jardunaren atal bat baino ez da.

Zinema tokia bihurtu dute gazteok Karmelo, antzinakoetan legez. Domekero, arratsaldeko seietan, emanaldiak egin dituzte eta ez dute euskara ahaztu. Gainera, 1999ko urritik aurrera zabalik dago liburutegia. Liburu andana ederra batu eta edonoren esku jarri dute. Horretaz gain, liburutegian liburu aurkezpenak, poesia emanaldiak eta bertso zein antzerki saioak egin dituzte.

Kulturari jarraituz, ludoteka aipatu behar da, asteen zehar hainbat gazteren topaleku bihurtzen dena. Taberna ere bada go Sorgintxulon, ostiral eta larunabatero. Eta musika gela ezin ahaztu, bertan egiten baitituzte talde batzuek euren prestakuntzak.

Garai batean Karmeloko haurtzaindegia izan zena gaur egun erakusketa gela gisa atonduta daukate. Hemen nahi duenak arte erakusketak antola ditzake. Eta antzerkizaleak antzerki gelan elkartu ohi dira, gela horretan bertan Txahal-aparta taldea ibili ohi bada ere.

Eta esandako guztiaz gain, bertso eskola, informatika gela, txistu, euskara eta eskulan ikastaroak eta beste hainbat jardun kulturagintzan eta herrigintzan. Ez da gutxi, ez, Sorgintxulon kabitzen dena.

den argi dago, zelan edo halan Sorgintxulon dabiltzanak handik bota gura dituzte. Eta horretarako zaharrentzako eguneko egoitzaren aitzakia jarri dute", argitzen du.

Sorgintxulokoak bat datoz Bilboko Udalaren proiektuak ez daukala ez hankarik ez bururik esatean. Gorka Irurtiaren aburuz, "Karmelon egin gura duten egoitza, gainera, teknikoki zentzunik bakoa da. Ilogailua ugari ipini beharko lituzkete. Askoz ere egokiagoa litzateke Txurdinagan, Zumalakarregi etorbidetaren amaieran dituzten lokaletan egitea",



zehazten du.

Gaztedi taldeak 51 urte daromatza Karmelo ondoko lokalean, bertako fraideekin lortutako akordioari esker. Taldea sortu zenean karmeldarrek euren lokal hori euskal kulturaren adierazle

nabarmena zen Gaztediri utzi zion. Harrez gero bertan eman ditu bere historiako urte guztiak Santutxuko Gaztedik.

Sorgintxulo, aldiz, orain dela ia-ia lau urte sortu zen, Karmelo zinema zaharra hutsik zegoela jakinda auzoarentzako

lokalek atontzeko asmoz gazte batzuek okupatu zutenean. Harrez gero hainbat ekitaldiren eta kultur zein gizarte jardunen eszenatokia eta aterpe-txea izan da.

Aiora Renteria

"'Harrobian' disko berriak istorio oso bat kontatzen du"




Gazte mahatsorri honek bere bizitzako zatirik handiena musikarekin lotua du. Hamar urte biolontxelo jotzen eman zituen arren, berehala hasi zen kantua munduan barrena. Askok 'Zea Mays' taldeko kantari gisa ezagutzen duzuen emakume honek musika ibilbide handia du atzetik. Oraingoan, beraien hirugarren disko 'Harrobian' besapean etorri zaigu. Abestiez gain ipuina eta bideoklipa ere badakar lan berri horrek.

Testua: Arrate Diez
Argazkiak: Iñigo Azkona

bertan

Kupoi hau Santutxuko AEKn (Arbidea 21) aurkezten duenari **BI EUROKO DESKONTUA** egingo zaio 'Euskara Mendian' liburua erosterakoan.
BERAZ, 5 EUROTAN SALDUKO ZAIO.





Zelan jaio zen Zea Mays taldea?

Irakasle eskolan ezagutu genuen elkar eta, bereziki, Londreserako ikasbidaia batean koinziditu genuen, Iñaki gitarra-joleak eta Asier bateriak elkarrekin jotzen zuten eta Ruben baxua gitarra klasean zegoenez, batu egin ziren eta azkenez, neu be haiekin elkartu nintzen. Behin, euren lokalera proba bat egitera hurbildu ginen, ea zer urteten zuen... eta horrela orain arte. Lau pistadun batean maketa bat grabatu genuen. Sei hilabete ondoren, Euskadi Gazteak-eko maketa lehiaketara bidali genuen eta hura irabazi egin genuen, 1997an. Hurrengo urtean Gor diskoetxea etorri zitzaigun kontratua egitera eta beraiekaz bi disko atera genituen bata "Zea Mays" 1998an eta bestea "Elektrizitatea" 2000an. Azaroaren erdirako hirugarren disko "Harrobian" aterako dugu, oraingoan, Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin.

Zea Mays izena nondik hartu zenuten?

Zea Mays izena nekazaritzako liburu batetik hartu genuen, sonoritate aldetik izen aproposa iruditu zitzaigun eta esanahiari dagokionez, Zea mays artoaren izen zientifikoa da.

Kontaiguzu, zelan hasi zinen zu musika munduan?

Hamahiru urte nituela nire nebak U2 taldearen liburu bat erosi zuen, bertan abestiak eta akordeak zelan egin azaltzen zen eta liburuarekin gitarra apur bat ikasten hasi nintzen. Egia esan, gitarrarekin akorde batzuk jotzen besterik ez dakit. Abestiak egiten hasi nintzen eta abestearen abesteaz eta irakasle eskolan ikasitakoarekin musika munduan sartu nintzen.

'Harrobian' disko berria aterako duzue orain, ze berezitasun du disko honek?

Azaroko lehen hamabostaldian kaleratuko da diskoa eta zazpi abestiz, ipuin bat eta bideoklip batez dago osatuta. Diskoa Urdulizko Tio Pete estudioan grabatu dugu Jose Lastra soinu teknikariarekin. Tipo baten bizitza kontatzen dugu, jaiotzen denetik hil arte. Letretan, pertsona horren bizitza agertzen da zazpi kapitulutan. Lehen abestian jaiotza, bigarrenean nerabea...eta horrela, bizitzaren nondik norakoak azalduz goaz. Ez da pertsona konkretu baten bizitza, pertsona baten edo eta sentimendu baten ibilbidea izan daiteke, norberak gure duen moduan interpreta dezake.

Disko berrian kolaboraziorik izan duzue?

Bai, noski. Musikan, txalapartari batzuen kolaborazioa izan dugu, baita, PiLT-ko Aitor Abio, Shisha Pagmako Migel, eta OST taldeko Kapiren laguntza ere. Ipuina guk idatzi dugu eta Kirmen Uribek zuzendu du. Bideoklipetan, Alex, Andeka eta Jonex hartu dute parte, eta diskoaren diseinuan Josuk, Piztiak taldekoak.

Ze iritzi duzu zuk disko berriaren inguruan?

Nire ustez, disko hau aurrekoekin konparatuz linealagoa dela esan daiteke. Lehenagoko diskoetan lasai hasten ginen, gero gogorrago eta azkenean berriz lasaiago. Oraingo diskoan hasieratik amaierara oreka bat mantentzen dugu, aldaketa nabaritzen da, helduagoa da. Esaten dute stonner estiloa dela, hau da, rock estilo bat.

Zelan bururatu zitzaizuen ipuin bat kontatzeko ideia?

Hasieran abesti batzuk egin genituen eta gero konaturatu ginen euren artean konexioa zutela, abestiek

pertsona baten istorioa kontatzeko aukera ematen zutela. Horrez gain, behin Bermeoko harrobi batera hurbildu ginen eta ideia bertatik hartu genuen.

Bideoklipaz zer aurreratu al diguzu?

Bideokliparen abestia "Gauaren argitan" da, bertan, Ereñoko harrobia, Bilboko irudiak, taldekoen irudiak eta marrazki bizidunegandako panpina antzeko bat agertzen da. Bideoa harrobian hasi eta amaitzen da. Bideoklip hau eskura eduki ditugun medioekin atera dugu aurrera, lagunekin...

Kantak zuek konposatutakoak dira?

Guk egiten duguna da, taldekoren batek akorderen bat edo ideien bat dakar eta horren gainean inprobisatzen hasten gara. Hala ere, disko hau bestela konposatu dugu, lehenengo era akustiko batean eta gero bateria sartu dugu. Nire kasuan, nik melodiak inprobisatzen ditut eta euskarazko hitzak botatzen ditut, pelikula bat egiten dut buruan eta sentimendu horiek aztertuz abestia konposatzen dut. Disko honetan ere ltoiz-en kantu baten bertsio berezia ere grabatu dugu.



TRUK LIBURU ETA DISKAK

SIN CHAN	URDANGARIN
 BETIZU KLUBA 14,83 €	 HELDU ARTEAN 16,00 €
BENITO LERTXUNDI	FERMIN MUGURUZA
 NERE EKIALDEAN 17,50 €	 IN-KOMUNIKAZIOA 15,00 €
SP-RAKO TRANBIA 10,50 €	EH-KO BASERRIEN ARKITEKTURA 72,11 €
 SPRAKO TRANBIA Unai Elorriaga ELKARLANEAN	 Euskal Herriko baserriaren arkitektura Historia eta espazioa La arquitectura del caserío de Euskal Herria Historia y espacio ELUSKO JAURLARTZA
BERTSOLARI TXAPELKETA 30€	IDI ORGAREN KARRANKA 13,75 €
 BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2001 BERTSOLARI LIBURUAK	 IDI ORGAREN KARRANKA Euskal Herrian gaindi, 1843 ELKAR VICTOR HUGO
 AUKERATU ZURE LIBURUA, DEI IEZAGUZU ETA EGUN GUTXI BARRU ZURE ETXEAN	deitu!
LIBURUDENAKO PREZIOAN ETA BIDALKETA GASTURIK GABE	TRUK 902 45 12 12 IRUÑEA • EUSKAL HERRIA

Hainbatekin kolaboratu duzu orain arte, ezta?

Betizuren lehen diskoan parte hartu nuen, ondoren, Doctor Deseoren azken diskoan bi abestitan koroak egin nituen eta PiLTren azken diskoan ere koroak egin izan ditut. Berri Txarrak taldearekin ere Gazte Topagunerako abestian kolaboratu nuen.

Honenbestez, musika zure bizitzaren parte handia dela badakigu, baina horrez gain zertan ibiltzen zara?

Musika irakaslea naiz eta Begoñazpin estraeskolarretan musika irakasten nabil eta orain ingelesa ikasten hasi naiz ere.

Ze musika mota duzu gustukoen?

Denetarik entzuten dut, kontzertu askotara joaten naiz, eta asko ikasten dut hortik. Azkenaldian, Cold Play eta Jeff Buckley entzuten nabil, musik lasaia jotzen dute. Orokorrean, gizonezkoen ahotsak emakumezkoenak baino gehiago gustatzen zaizkit., baina egia esan, ez dakit zergatik.

HAMAR GALDERA LABUR

Musika falde bat:

Motor Psycho (Noruega)

Liburu bat:

"No me esperen en abril" Bryce Echenique

Ametz bat:

Horrela jarraitzea edo apur bat hobeto

Abesti bat:

Black (Pearl Jam)

Jateko plater bat:

Spagettiak pesto erara

Pelikula bat:

800 balas

Toki bat:

Bilbo

Lasaitasuna ala martxa:

Martxa

Mendia ala itsasoa:


Mendi tontorretik

itsasoa ikustea

Amesgaiztoa:

Ahots barik gelditzea

UMEEN SEXU AUKERAKETAREN ALDE ALA KONTRA ZAUDE?




GAIZKA (SANTUTXU)

MOMENTUAN EZ DUT SEME-ALABARIK IZATEKO IDEIARIK, ETA BERAZ, EZ DUT HORRETAN PENTSATZEN.



SOFIA (TXURDINAGA)

BASAKERIA DELA USTE DUT. NATURAREN ERABAKIA IZAN BEHAR DA



GORKA (SANTUTXU)

KONTRA NAGO. UMEA GURASOEN ARABERA SORTU BEHAR DA INOLAKO ESKU SARTZERIK BARIK. IZAN BEHAR DENA!



JOSU (SANTUTXU)

ONARTUKO NUKE JENDE MULTZO ZEHATZ BATENTZAT PRIBILEGIOA BIHURTZEN EZ DEN BITARTEAN.




IRATXE (SANTUTXU)

ROSA (SANTUTXU)

EZ NAGO ADOS, IZAN BEHAR DENA IZANGO DA ETA ONARTU BEHAR DA

ADOS NAGO. SEXUA AUKERATZEKO AUKERA BADAGO, ZERGATIK EZ HAUTATU?



KARMELO (SANTUTXU)

AMAIA (SANTUTXU)

EZ DUT ONDO IKUSTEN. ETA DENEK SEXU BERA AUKERATUKO BALUTE, ZER?

KONTRA NAGO ERABAT. TXINAN ESATERAKO EZ ZIREN EMAKUMERIK JAIOKO ETA AUERRERA ATERTZEN ARI GAREN MOMENTUA HONETAN EZIN DUGU HAU ONARTU.

Begoñako auzoek aparkaleku gehiago eta TAO eskatu dute

Gaur egun Mallona inguruan trafiko arazo larriak daudela esan zioten Isabel Sanchez zinegotziari

Begoñako auzokideak Mallona inguruko trafiko arazo larriak konpontzeko mugitzen hasi dira. Lehenengo batzarra egin zuten, indarrak batu eta eskakizunak finkatzeko, eta gero Bilboko Udaleko Zirkulazio zinegotzi Isabel Sanchezekin elkartu ziren. Udal arduradunari bi eskari nagusi planteatu zioten: aparkaleku gehiago atontzea eta TAO (OTA) sistema atontzea. Sanchezen erantzuna, biei berdin. Ezetz. Auzoek, hala ere, ez dute etsiko.



'Hemen egingo du Udalak lur azpiko aparkalekua'

Azkenaldion Begoña inguruan trafikoaren arazoak protagonismo handia hartu du. Irailaren hondarretan, auzoko batzuek deituta, batzar zabal bat egin zen. Bertan 80 bat lagun azaldu zen. Batzar hartan auzoaren arazo handi horri ze irtenbide eman aztertu zuten eta, azkenean, proposamen bi atera ziren aurrera. Batetik, aparkaleku arazo handiak daudenez, Bilboko Udalak Etxebarria parkearen ondo-ondoan egin nahi duen parking horretan auto gehiagorako tokia egitea. Bestetik, TAO sistema auzoan ere indarrean jartzea. Izan ere, gaur egun asko dira Begoñara autoz joaten direnak bertan aparkatzeko eta gero metroz, igogailuz edo oinez Bilbo erdira iristeko.

ZINEGOTZIAGAZ

Bi eskakizun nagusi horiek aldean hartuta, batzarraren hiru ordezkari Zirkulazio zinegotzi Isabel Sanchezekin (EAJ) batu zen urriaren 15ean. Auzoek eurek jakinarazi dutenez, bilera horretan Etxebarriako parkeko lur azpiko aparkaleku berri plaza gehiago egiteko eskatu zioten. Isabel Sanchezek 175 toki edukiko duela erantzun zuen, baina eskari handiagoa egonez gero beste solairu bat atonduko lukete. Horrela balitz, 250 plazakoa izango litzateke.

Auzoek, oster, plaza gutxi direla esan zioten. Izan ere, euren iritziz "apur bat justua izan daiteke, kontuan hartuta aparkaleku hori egiteko gaur egun erabiltzen diren 80 bat toki desagertuko direla". Plaza horiek galduko dira parkea apur bat zabalago egingo delako eta aparkaleku berriak sarbidea behar duelako. Beraz, 175 egiten badira eta 80 galtzen badira, hobekuntza ez da handia, auzoen iritziz.

Bigarren aldaketa TAO sistemarena da. Begoña ere TAO barruan sartu gura dute bertakoek, gaur egun auzo-

an aparkatu ezinik daudelako. Isabel Sanchezek ezetz borobilena eman zien. Zinegotziak azaldu zenez "horrela segituz gero, Artxandaraino iritsiko gara". Udal arduradunak argitu zenez, Bartzelonan 3.000 ziren TAO barrutietako plazak eta Bilbon, aldiz, 12.000.

SINADURAK BATZEN

Zinegotzi jeltzaleak begi onez ikusi zuen, oster, auzoek proposatu trafiko aldaketa. Begoñarrek Etxebarria parkeko biribilguneetik (errotanda) Mallonako futbol zelaiarako trafikoa norabide bakarrean jartzeko esan zioten, erraza- go ibiltzeko eta aparkaleku gehiago atondu ahal izateko.

Isabel Sanchezegaz batu ostean begoñar auzoen lanak ez dira amaitu. Laster beste batzar bat egingo dute. Eskariei indar gehiago emateko asmoz, sinadurak batzen hasi dira. Lerro hauek idatzi orduko 500 auzokideren babesa lortu dute idatziz. Eta Udaletxeko atek josten segitzeko asmoa dute auzoan dagoen arazo handiari irtenbidea eman arte.

Begoñako tunelak datorren urtean konponduko dituzte

Bizkaiko Batzar Nagusiek onartu dute obra hori egin beharra

Begoñako tunelak, Zumalakarregi etorbidean, datorren urtean konponduko dituzte. Zaharberritzeko erabakia urriaren 9ko batzarrean hartu zuten.

Tuneletako hormak toki batzuetan arrakalatuta eta beste batzuetan ur dariela daude. Obrak Bilboko Udalarekin elkarlanean egingo ditu Dipuazioak.

Bizkaiko Batzar Nagusien erabakia Zumalakarregi etorbideko tunelen egoera kaxkarraren ondorioz etorri da. Izan ere, Diputazioaren Herri Lanen sailak prest dauka, honez gero, zaharberritze proiektua. Obra hori lau ataletan egingo dute. Lehenengo helburua estruktura indartzea eta arrakalak ezabatzea izango da. Jakina, horixe dugu lanik eta premia-koena, edozelango arriskurik sahiestu nahi bada.

Bigarren urratsa ur isurketak ekiditeko lehortze sistemak ipin-tzea izango da. Horrela, ur dariela dauden alderdien arazoa behin betiko konpondu gura dute.



TUNEL KOLOREDUNAK

Hirugarren ataletan tunelen estetika hobetuko dute. Horretarako, margotu egingo dituzte. Tuneletako bat urdin eta beilegi pintatuko dute, eta 'urarekin lotutako ideiak ekarriko ditu'. Beste tunelak, oster, berde eta beilegiz margotuko dituzte, kasu honetan lurraren gomutagarri.

Tunelen zaharberritzea amaitzeko, barruko argiak aldatuko dituzte. Goialdean jarriko dituzte argi-foko berriak, hala autoek nola oinezkoek argitasun gehiago eduki dezaten.

Diputazioak Bilboko Udalarekin adostu nahi ditu obra hauek. Izan ere, Bilbo sarbide horren ardura Foru Aldundiarena bada ere, tunelen goialdean kale bat dago -Bilboko Udalaren ardura, beraz- eta inguruetan ur-hodiak daude. Azken hauek izan daitezke, foru arduradunen ustetan, ur isurketen iturburu.

Obrak egiteko epea bost hilabetekoa da. Diputazioak eginiko kalkularen arabera, inbertsioa milioi bat eurokoa izango da. Edozelan be, obrak egiterakoan ez da trafikoa moztuko. Tuneletako bat beti egongo da zabalik, auto gidariei ahalik eta kalte txikiena egiteko asmoz.

Garraioak

Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33

Sugea taberna

Iturriaga, 92 Santutxu

BASTERTXU

TABERNA
Ricardo Bastida plaza

E R R I K A R I A K

E R R I K A R I A K


Larreagaburuko parkea forma hartzen hasi da

Iñaki Azkuna alkateak 2005erako atonduko dutela iragarri du

Larreagaburu (Mina del Morro) eta Miraflores artean egingo duten berdegune zabala forma hartzen hasi da. Bilboko parkerik handiena izan da eta bere 27 hektareak zelan antolatu-ko duten Emilio Puertas arkitektoaren proiektuak argitzen digu. Larreagaburu mendia erditik hustu egingo dute eta egurrezko zubi baten bidez autobidearen gainetik pasa eta Ibaizabalen ibarreraino jaitsiko da berdegune hori.

tuak argitzen digu. Larreagaburu mendia erditik hustu egingo dute eta egurrezko zubi baten bidez autobidearen gainetik pasa eta Ibaizabalen ibarreraino jaitsiko da berdegune hori.

Ondoko irudi horrek gaur egungo asmoak zeintzuk diren islatzen du. Batetik, Larreagaburu muinoa, edo hobeto esanda muino horretako azken zatia, barrutik induskatu gura dute. Horrela bi milioi metro kubiko lur aterako dute bertatik. Alboetako mendi hegiak bere horretan utziko dituzte, barrukoa babesteko-edo. Santutxu eta Larreagaburu arteko hamabi hektareatan eguzkia hartzeko tokiak, kiroldegiak, hiru pilotalekuak eta rokodromoa atondu gura dituzte.



Hala ere, horiek denak aurrerago zehaztuko dituzte. Horixe da orain darabilten ideia. Eta ideia horren barruan deigarriena, duda barik, pasealeku batez inguratuta egin gura duten lakua. Bertan txalupatan ibiltzea ere pentsatu dute.

Behin Larreagaburuko tontorrean, olazko zubi baten gainetik igaroaz autobideko biribilgunea salbatu dugu eta parkearen bigarren atalean egongo gara. Alderdi hori 15 hektarea zabal izango da eta Ibaizabalen ibarretara bertara jaitsiko da. Bertan Abusu ikastola dago eta apur bat gorago 14.000 lagun hartzeko moduko auditoriuma egitekotan daude. Emilio Puertas arkitektoak goialdean zerbitzu eraikina jarri nahi du: taberna, jatetxea, komunak, osasun zerbitzuak eta segurtasuna. Auditoriumaren beste aldean aktoreentzako aldagelak jarriko lituzkete.

HITZARMENA

Urriaren 28an Iñaki Azkuna alkateak eta Javier Madrazo Etxebizitza sailburuak Larreagaburu-Miraflores parkea egiteko hitzarmena sinatu zuten. Bi instituzioen artean 15 milioi euro jarriko dute eraikuntza lanak ordaintzeko. Hala ere, Azkunak eman zuen abisua, baliteke dirutza hori nahikoa ez izatea.

Gainera, proiektu honekin estu-estu lotuta, Bilboko Udalak badu ubideen pasealekua (Paseo de los Caños erdaraz) zaharberitzeko asmorik. Izan ere, gaur egun alderdi hori zeharo galduta dago, sasiz eta zikinkeriaz lepo beterik.

Behin tranbiaren lanak Atxurin amaituta, pasealeku historiko hori egokitzeko lanak hasiko dira. Izan ere, parke berrirako oinezko sarbidearena egingo du pasealeku honek. Atxuri Bolueta eta Abusurekin lotuko du ibilbide atsegin baten bidez.

BILBOKO UDALAK INBERTSIO BERRIAK

Iñaki Azkunak urrian aurkeztu du agintaldia agortu arteko inbertsioen zerrenda. Gure artean aipagarrienak Otxarkoagako urbanizazio lanak dira, orain arte hasitako hiru atalei beste bi gehituko zaizkie eta. Azken bi horiek 11 milioi euro beharko dute. Santutxun, Iturribide kaleko goialdean ere urbanizazio lanak egingo dituzte, pilotalekua txukunduaz, bazter zikinak kenduaz eta plazako mugak ondo markatuaz.

Otxarkoagako liburutegia azaroaren 18an zabalduko dute

Egitarau polit baten laguntzaz, Otxarkoagako udal liburutegi zaharberituak azaroaren 18an zabalduko ditu ateak. Barrutik zeharo aldatuta dago auzo-etxeko liburutegia eta langile zein ekipamendu egokiagoak edukiko ditu. Ospakizun ekitaldietako bat BERTON aldizkariaren esku geratuko da.

Otxarkoagako udal liburutegia, Bilboko auzoetako udal liburutegien artean liburu gehien daukanetako bat da. Izan ere, bere apalategietan 11.000 ale metatzen dira, nork hartuko dituen zain. Auzo-etxe zahar-beritze lanen ondorioz, liburutegian distribuzioa aldatu dute, altzari berriak jarri dituzte eta haize egokituaz hornitu dute, besteak beste.

Gainera, hiru ordenagailu paratu dituzte liburutegi barruan. Horrela, edozein erabiltzailek internet edukiko du eskura, baita ofimatika zerbitzuak ere. Azkenik, lehen langile bakarra zegoen tokian orain bi izango dira, zerbitzu hobea eskaintzeko asmoz.

Inaugurazioa azaroaren 18an egingo dute. Hala ere, aste osoan zehar hainbat ekitaldi egingo da. Esate baterako, goizero auzoko eskoletatik bisitaldiak hartuko dituzte, ikasleek liburutegi berria zelangoa den zehatz-mehatz jakin dezaten. Hilaren 18an, arratsaldeko zazpitan, inaugurazio ofiziala egingo da. Besteak beste, udal agintariak eta auzoko elkarteak egongo dira. Gainera, Nikaragauako Leon-eko liburutegi publikoarekin anaituta daudela gogoratu dute.

Azaroaren 19an, martitzena, 'Otxarkoaga, Begoñako euskararen gordailu' hitzaldiaren txanda iritsiko da, BERTON aldizkari Benito Fizen eskutik. Izan ere, Begoñako euskara bizirik dagoen alderdi bakarra Otxarkoaga dugu gaur egun.

Azaroaren 20n hitzaldi eta irakurraldia egingo da Otxarkoagako erdal idazle biren ahotik, Jose Serna Andres eta Manuel Molina hain zuzen. Azaroaren 21ean umeentzako tailerrak egingo dituzte eta hilaren 22an, astea amaitzeko, 'Flamencos de hoy' saioaren ordua izango da, 'El Yeye' ren ardurapean. Gainera, aste osoan zehar liburutegian literaturaren gaineko erakusketa bat jarriko da ikusgai.

Pa Yak Marx eta Leninen estatuak jarriko ditu Urretxindorra plazan

Otxarkoagako Pa Ya kultur elkarteak 'Pa Ya Eguna' antolatuta azaroaren 30rako. Jai kutsu nabarmenaz jantziko dute hilaren azken larunbat hori. Ospakizun kutunena, duda barik, Karl Marx eta Lenin osterara be auzoaren erdi-erdian paratuko dituen da. Trikipoteoak, inddaba-janak, guatekeak eta giro onak ere 'Pa Ya eguna'ri behar beste gatza eta piperra emango diote.



Lehenengo urteetan txarriboda batez ospatu izan dute. Sardinadarik ere egin dute inoiz. Aurten, inddaba-jana, sakramentu guzti-guztiekin. Kontua da 'Pa Ya Egun' horretan, azaroaren 30ean hain zuzen, Otxarkoagako konpartsako kide guztiak batzea eta elkarrekin ondo pasatzea. Jon Martinez ahosemaleak dioskunez, "Aste Nagusian beharrezko egon garen guztiok alkarrengatik ospatu nahi dugu Pa Yak aurtengo helburu guztiak bete dituela".

Pozarren daude, beraz, egindako lanarekin, "batez ere Aste Nagusian presentzia nabarmena eduki dugulako". Beste asko dira, hala ere, Pa Yak urtean zehar eginko ekitaldiak, Sanferminetako peñekin anaikidetze eguna edo Justuguneko erromeria esate baterako. Horregatik, azaroaren 30eko ospakizuna konpartsero guztientzat dohain izango da eta, gainera, zabalik egongo da bertan egon nahi duen edonorentzat.

MARX ETA LENIN

Egitaraua eguerdiko hamabi eta erdietan zabalduko da, Otxarkoagako kaleetan barrena egingo duten triki-poteoarekin. Ordu bete geroago, ordubat eta

erdietan alegia, Urretxindorra plazan, autobus geltokiaren ondoan, Karl Marx eta Lenin-en omenezko estatua jarriko dute atzera be. Estatua hori Madrilgo enbaxada baten barruan egon zen urteetan. Ekialdeko herrialdeetan 'sozialismo erreala' deitu zena behera jausi zenean, Otxarkoagako 'Pa Ya' kultur elkarteak estatua hori auzora ekartzea lortu zuen.

Behin Otxarkoagan, estatua kalean jarri zuten. Hala ere, materialak ez ziren kanpoan egoteko modukoak eta berehala arrakalututa eta kaltetuta agertu zen. Ondorioz, 'Pa Ya' tarrek zaharberitze lanak agindu zituzten. Behin berriztapena amaituta, azaroaren 30ean Marx eta Leninen oroitarria berriz ere Otxarkoagako bihotzean egongo da.

'Pa Ya Eguna' ez da horretan geldituko. Arratsaldeko hiruretan inddaba-jana egingo dute euren lokalean eta sei eta erdietan 'euskal guatekea'. Jai eguna Zazpi Kaleetan amaituko da, gaueko bederatzietan poteoa egingo baitute bertatik 'Ardoa Barrura' konpartsaren doinuez lagundurik.



SANTUTXU SPORT

BERRIKARRIAK

BERRIKARRIAK

Eusko Jaurlaritzako Hermanitas de los Pobresen ondoko orubean egiteko prest dago

KARMELO IKASTOLAREN ERAIKIN BERRIA BILBOKO UDALAREN ESKU DAGO



Karmelo Ikastola berria Santutxun egiteko oztopo bakarra Bilboko Udala da gaur egun. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailetik ikastolari jakinarazi diotenez, Hermanitas de los Pobres alderdiko eraikin berria bere gain hartzeko prest daude. Orubea lortzea besterik ez da falta, baina horixe da Bilboko Udalak eman nahi ez duen pausoa. Iñaki Azkuna alkate jeltzaleak ez ditu ikastolako ordezkariak hartu gura eta, bitartean, epeak azkar-azkar agortzen ari dira.

Testua: H. O. / Argazkia: Iñigo Azkona

Borroka luzearen azken txanpan gaude. Karmelo ikastolak eraikin berria Santutxun bertan eduki dezan oztopo bakarra Bilboko Udala da gaur egun. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saila prest azaldu da Hermanitas de los Pobresen ondoko orubean ikastola berria eraikitzeko. Azken hileotan beste aukera batzuk nahiago izan baditu ere, azken asteotan Santutxun bertan eraikin berria egiteko lanak bere gain hartuko dituela jakinarazi du.

Izan ere, azaroaren erdialdean Eusko Jaurlaritzako ordezkariak Karmelo ikastolakoekin batuko dira euren proposamen zehatzak zeintzuk diren jakinarazteko. Orduan aukera batzuk emango dizkiote ikastolari, bere etorkizuna zein izango den erabakitzeko. Horietako bat, esan legez, Hermanitas de los Pobresen ondoko orubean eraikin berria egitea izango da. Aukera hori gauza dadin, oster, orubea behar da. Eta horixe dugu, hain zuzen ere, gaur egungo arazorik handiena. Bilboko Udaleko arduradunek behin eta berriz esan diote ikas-



tolari Karmelo berria ez dela alderdi horretan egingo. Beste toki batzuk eskaini dizkiote -denak Santutxutik kanpo- baina zeharo baztertu dute Hermanitas de los Pobresen ondoko lur saila. "Gaur egun -azaltzen du Karmelo ikastolako zuzendari berria Isabel Dominguezek- Bilboko Udalak du giltza". Baina ez dirudi Bilboko Udala giltza hori erabiltzeko asmatan dabilenik. Udal arduradunen ezetz tematiari beste kontu bat lotu behar zaio. Ikastolako arduradunak azken asteotan Bilboko alkate Iñaki Azkunarekin bilera bat egiteko ahaleginak egiten ari dira. Eskari horri behin eta berriz muzin egin dio agintari jeltzaleak bere idazkariaren bidez.

EPEAK AGORTZEAR

Borroka honen nondik norakoak are larriagoak bihurtzen dira epeak oso murriztak direlako. Izan ere, Hermanitas de los Pobresen ondoko orubean induskailuak dabilta bertan egin beharreko lur mugimenduak gauzaten. Urtarrietik aurrera urbanizazio lanak hasiko dira, bertan etxeak, apartakalekuak, kiroldegia eta parke txiki bat atontzeko. 2002 amaitu baino lehen lortu behar du baietza Karmelok. Osterantzean, alferrik izango da. Ikastolan badakite jakin epeak agortzekotan daudena eta eraikin berria Santutxun egingo bada oraintxe egin behar dutena ahaleginik handiena. Horregatik, datozen asteotan euren eginahalak bikoiztu egingo dituzte arazoari irtenbide egokia emateko eta, batez ere, Santutxuk ikastola berria eduki dezan.

IKASTOLA BERRIA BAI, BAINA NON?

Honez gero ez da dudarik. Karmelo ikastolak eraikin berria behar du. Horretan danok datoz bat. Beraz, erantzun beharreko galdera bakarra dago: non? Eta berarekin lotuta, zelako baldintzetan? Eta horixe da, hain zuzen, orain arte instituzioek erantzun ez dutena. Bilboko Udalaren ardura da ikastola publiko batentzat orubea lortzea. Orain arte egin dituen eskaintzak -Mina del Morro ikastetxea, Miribilla,...- ez dira ikastolako ordezkarien gustukoak izan. Ikastolaren eskaria, aldiz, ez du ontzat jo eta, egia esanda, ez du entzun nahi ere.

Zergatik? Ofizialki, ez dutelako Hermanitas de los Pobresen ondoko ibarbidetako hirigintza plana aldatu gura. Baina Bilbon gauzarik normalena da hirigintza planak behin eta berriz aldatzea, batez ere aldaketa esku boteretsu batek eskatzen badu. Egunokaz Abandoibarran bertan ikusi dugu Aldundiaren dorrea behar bezain altu egin ahal izateko. Edota Uribitarten altxatu behar dituzten Isozakiren etxetzarrak, kasu. Bilbon kabitzen ez dena, antza, auzo populatu bateko ikastola publikoa da.

HASI DA BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA!

LAU MAHATSORRI IZANGO DITUGU AURTEN LEHIAKIDE



Testua: *Eneritz Ibarrodo* / Argazkia: *BERTON*


Hasia dago jada, aurtengo Bizkaiko bertsolari txapelketa. Udaberrian egindako eskualdekako saioen ostean, hoberen egindakoek jokatuko dute irailaren 28an Arrigorriagan hasi eta abenduaren 8an Bilbon amaituko den txapelketa. Kanporaketetan hiru mahatsorri ditugu (Matxalen Zabaljauregi, Oihana Bartra eta Jon Eizmendi); laugarren bat ere badago, aurreko txapelketako finalista izan ostean final-aurrekoetara zuzenean joango dena, Arkaitz Estiballes berau.

Aurtun txapelketan ez dago berrikuntza handirik. Bertsolarien artean, "betikoak" ditugula esan daiteke; hori bai, gazteen presentzia handia azpimarratuz. Gero eta gazte gehiago ikusten da bertso munduan eta oso maila onarekin gainera. Hau txapelketa hone-tako partehartzaileetan ere igarri da. Aurtengoan

ditugu adibidez, lehenengo aldiz txapelketan parte hartuko duten Oihana Bartra eta Matxalen Zabaljauregi gazteak.

Gazte kopuruaren gorakada hau ez da bakarrik partehartzean nabaritu, jarraitzaileen artean ere gazte jendea

ugarituz doa. 1993an bertsolaritzak izan zuen "boom"-aren ostean beherakada nabaritu bazen



ere, orain bertsozaleen kopurua egonkortuta dagoela esan digu aditu batek. Publiko gehien izaten duten txapelketak famatuek parte hartzen dutenak izan ohi dira; hau da, Bizkaiko txapelketaren kasuan, final-aurre eta finalean batuko zaigu jende gehien.

Askotan entzun izan da, finalera hurbildu ohi den jende mordoaren ondorioz, sarrerak lortzeko arazoak sor daitezkeela. Antolatzaileetako batek esan digunez ordea, lehen gertatzen zen hau, Arriagan egiten zenean. Hemen 1.200 sarrera bakarrik jar zitezkeen salgai. Aurreko txapelketako finala ordea, Euskalduna jauregian egin zen, eta 2.000 sarrera gutxi gora behera saldu ahal izan ziren. Aretoa guztiz bete zen, antolatzaileen prebisioak gaudituta, baina hala ere kanpoan ez zen inor gelditu. Aurtengoan 12-15 eurotan lortu ahal izango dira sarrerak, eta aipatu digutenez jendeak aurrez erosi ohi ditu.

FINALERAINOKO BIDEA

Aurreko udaberrian eskualdekako txapelketak egin ostean, saio txukunenak egin zituztenak jokatzen ari dira Bizkaiko txapelketa. Eskualde bakoitzeko irabazlea eta puntuazioaren arabera hoberen sail-

katutako beste batzuk, 30 guztira, arituko dira kanporaketako bost saioetan. Hemendik hamaika bertsolari pasatuko dira aza-roan jokatuko diren final-aurreko hiru saioetara; bertan aurreko txapelketako finalistekin batera lehiatuko dira. Hauen artean daukagu Arkaitz Estiballes mahatsorria.

Hauetatik zortzi bertsolari izango ditugu azkenean abenduaren 8an Bilboko Euskalduna jauregian egingo den finalean. Azken saio hori bi ataletan banatuko da: lehenengoan bertsolari guztiek jokatuko dute, eta beste-

an, aurrekoan sailkatutako lehenengo biak; hemendik aterako da txapelduna.

Bilboko eskualdean Marta Ortizek irabazi zuen. Beraz, Bizkaiko txapelketarako sarrera ziurtatuta zeukan; lortutako sailkapenari esker kanporaketara joatea lortu duten Oihana Bartra, Matxalen Zabaljauregi eta Jon Eizmendirekin batera. Baina Marta kanpora joan da eta horregatik txapelketa utzi behar izan du. Ea gainerakoek ongi egiten duten euren lana! Momentuz, Oihana Bartra dugu hoberen doana. Arrigorriagan egin zuen saio onagatik bosgarren postuan doa, geroago ditugu Jon eta Matxalen.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2002

FINAL-AURREKOAK

- Igorre: 2002-11-17 Frontoia, 17,30
- Bermeo: 2002-11-24 Frontoia, 17,30
- Getxo: 2002-12-01 Getxo antzokia, 17,30

FINALA

- Bilbo: 2002-12-08 Euskalduna jauregia, 17,00

Gelaya INMOBILIARIA
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA-SALMENTA - ALOGERAK - ...

Iturriaga, 92
Tfona. 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo

ADI Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

Zergak-lan harremanak
kontabilitatea juridikoa
merkatalgintza

**PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!**
SAAK

horoskopoa



Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Arranopola, lagun! Ez jatzu oraindino joan AEKeguneko ostea?



Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Koxuaren moduan joan da igesi, anka bakar batekin baliteke bizi... Oskorrik aspaldian kantatu ebazan Gabriel Arestiren bertsoak...



Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Zenbat eta gehiago pentsau, orduan eta okerrago. Inoiz zeozer egin beharko dozu, ezta?



Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Ukondoak urratu arte ikasi beharko dozu, bai, baina ondo urtengo jatzu. Ez euki dudarik.



Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Barreka ikusten zaitut beti. Denori adarra jotzen zabil-tza ala?



Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
AEKeguna zan, laguntxu, ez AEKgaua. Zenbat ordu emon zenduzan Santutxuko kaleetan gora eta behera?



Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Hamaika gauza ikusteko jaio gara! Noiz arte egon behar dozu bikini hori jantzita?



Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Lehenengo eguneko ha zeure bizitzako amodioa izango ete den jakin guran zabil-tza. Poetak idatzi eban legez, niri ez galdetu, galde egiozu zeure bihotzari.



Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Athleticek negargura baino ez deustu emoten. Umemo-ko milioiakodun horiengaitik domekero ohera afaldu barik joango zara? Txotxolo halakoa!



Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Hori dok eta! Esan behar zeuntsan guztia esan eta gero askoz be hobeto sentitzen zara, ezta? Ederto. Hurrengoan esaiozu bera aurrean dala.



Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Domusantu egunean hildakoen alde kantuka eta kontuka ibiltea ondo dago... Baina erantzi izara eta deabru mozorro horiek, mesedez!



Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Aste hontan musika disko bat erosiko dozu. Entzun eta lehengoan ez jatzu gustatuko. Bigarrenan, ostera, itzel. Orduan gordeko dozu eta dozu egundo entzungo.

agenda

AZAROAREN 7
IPESEN 25. URTEURREN JAIA.
KAFFE ANTZOKIAN. BERTSOLARIAK.
TXOTXONGILOAK ETA ENE BADA
TALDEAREN KONTZERTUA.

AZAROAREN 14
GOR DISKETXEAREN JAIA.
KAFFE ANTZOKIAN. ASGARH
TALDEAREN KONTZERTUA.

AZAROAREN 15
ARIMA BELTZAK BLUES TALDEAK
BERE DISKO BERRIA AURKEZTUKO
DU. KAFFE ANTZOKIAN.

AZAROAREN 15-24
NAZIOARTEKO TXOTXONGILO
JAIALDIA. ARRIAGA ANTZOKIAN,
EL CARMEN ARETOAN ETA
BILBOROCK ARETOAN.

AZAROAK 17
BIZKAIKO BERTSOLARI
TXAPELKETAKO FINALAURREKOA.
IGORREKO FRONTOIAN. 17:30ETAN.

AZAROAK 17
ERLO (1.026 M)-AZPEITHATIK.
BAZKARIA SAGARDOTEGI BATEAN.
MENDI IRTEERA. EGUZKI LOREA
MENDI TALDEA.

AZAROAK 18
OTXARKOAGAKO UDAL
LIBURUTEGIAREN
INAUGURAZIO EKITALDIA.

AZAROAK 19
'OTXARKOAGA, BEGOÑAKO
EUSKARAREN GORDAILU'.
HITZALDIA. BERTON ALDIZKARIA.
OTXARKOAGAKO UDAL
LIBURUTEGIA.
ARRATSALDEKO 7ETAN.

AZAROAK 20
HITZALDIA ETA IRAKURRALDIA.
JOSE SERNA ANDRES ETA MANUEL
MOLINA. OTXARKOAGAKO
UDAL LIBURUTEGIA.

AZAROAK 21
UMEENTZAKO TAILERRAK.
OTXARKOAGAKO UDAL LIBURUTEGIA.

AZAROAK 22
'FLAMENCOS DE HOY'.
OTXARKOAGAKO UDAL LIBURUTEGIA.

AZAROAK 24
BIZKAIKO BERTSOLARI
TXAPELKETAKO FINALAURREKOA.
BERMEOKO ARTZA
FRONTOIAN. 17:30ETAN.

AZAROAK 30
'PA YA EGUNA'. EGUN OSOAN ZEHAR
EKITALDIAK. EGUERDIKO ORDUBAT
ETA ERDIETAN URRETXINDORRA
PLAZAN MARX-ETA LENINEN
ESTATUA JARRIKO DUTE



Kaixo laguntxo!

KAMILTXO

lehen hartz euskalduna!

27 €
bidalketa gastuak:
4,25 €

DEITU ORAIN
902 45 12 12
EGUN GUTXIREN BURUAN, ZURE ETXEAN

TRUK
902 45 12 12
IRUNEA • EUSKAL HERRIA